



## STEE-EILAS KORRIKAREN ALDE

Egun hauetan, martxan dago Euskal Herrietako herri eta auzoetatik AEK-k antolatutako 18. KORRIKA. Aurrekoetan bezala, STEE-EILAS sindikatuak bat egin nahi du ekimen honekin, tamalez, euskarak sustapenerako laguntza guztiak behar dituelako oraindik. Normalizazio linguistikoa urrun izanik ere, KORRIKA-ren 18. edizioa ahalegin bikaina da, batez ere gaztelera nagusi den esparrutan, euskara normalizatzearen beharra agerian uzteko.

Baina euskararen sustapena ez da KORRIKAREN helburu bakarra. Une honetan, gogoratu behar da euskalduntze eta alfabetatze mugimenduak behar ekonomiko garrantzitsuak dituela, administrazioaren aldetik murrizketa itzelak izaten dituelako.

Hiriburu bakoitzean eta beste euskal sindikatuarekin batera, KORRIKAREN lekukoa eramango dugu edizio honetan ere. Aldi berean, EILASKIDE guztiei dei egiten diegu KORRIKARA bertara daitezen eta parte har dezaten. Herri ekimen honek gure babes osoa du.

Hego Euskal Herrian hezkuntza munduan euskara asko zabaldu bada ere, hizkuntza ereduaren sistema gainditzeko dugu oraindik, horrek hainbat ikasleri oinarriko hezkuntzan euskararen gutxieneko ezagutzarik gabe uztea dakar. Are larriagoak dira Nafarroan eta Lanbide Heziketan ditugun hutsuneak.

Gauza jakina da euskara ez dela normalizatuko esparru guztietara sartzen ez den bitartean, lan mundutik at jarraitzen duen heinean bigarren mailako hizkuntza izaten jarraituko du. Beraz, bidea luzea dugu aurrean.

STEE-EILAS sindikatuok urrats berriak emateko ordua dela uste dugu, euskara lan-munduan sustatu, garatu eta normalizatu ahal izateko. Horretarako, langileak kontzientziatu behar ditugu, gure enpresetan euskaldunek, inolako beldurrik edo konplexurik gabe, bere hizkuntza erabil dezaten. Eta horretarako, Administrazioaren inplikazioa ere ezinbestekoa da, baliabide eta plan egokiaz lagunduz. Gainera, bereak diren lantokietan (zerbitzu administratibo guztietan, Osakidetzan...) euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatu beharko lituzke, eta hori ez da betetzen.

Euskal Herria, 2013ko martxoaren 15ean